



**“ARABAKO MENDIALDEA: EZAGUTZEKO ETA GOZATZEKO INGURUNEA” XXI. ARGAZKI LEHIAKETAREN  
OINARRIAK**

**1.- GAIA:**

ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO ingurumen naturala, soziala eta artistikoa, ondarea, kultura, paisaiak, eraikinak, ohiturak, tradizioak, jaiak eta abar islatuko duten gai libreko argazkiak. Eskakizun hori betetzeko, aurkeztutako argazkiek argi eta garbi islatu beharko dute argazkiok egin diren tokia edo parajea Arabako Mendialdeko Kuadrilla osatzen duten sei udalerrietako batekoa dela. Obren artean aniztasun handiagoa izateko, argazkiek Arabako Mendialdea urteko urtarotetan irudikatzea gomendatzen da.

Gomendagarria da da oinarri hauen BOSGARREN OINARRIA irakurtzea, sariak banatzeko aukeratutako irizpideak eta argazkiek jorra ditzaketen gaiak ezagutu ahal izateko.

Argazkiak, beste batzuren artean, eskualdeko turismo sustapena egiteko 2025ko egutegian erabiliko dira. Arabako Mendialdeko Kuadrilla osatzen duten udalerrietan hartutako argazkiak bakarrik onartuko dira, alegia, ondoren aipatzen diren udalerrietakoak:

- Kanpezu
- Arraia-Maeztu
- Harana
- Bernedo
- Lagran
- Urizaharra

**2.- PARTAIDEAK:**

Hala nahi duten adinez nagusi guztiek parte hartu dezakete.

**3.- LANAK AURKEZTEA:**

Gehienez 4 argazki aurkeztu ahal izango ditu lehiakide bakoitzak. Lehenago argitaragabekoak eta beste lehiaketaren batean saritu gabekoak izan beharko dute obrek.

Argazki kamera digital zein analogikoez egindako argazkiak aurkeztu ahal izango dira, formatu digitalean zein paperean, lehiakidearen arabera. Originalak kolore edo zurbeltzean izan daitezke.

Argazki digitalak “.jpg” formatuan aurkeztuko dira derrigorrez , eta gutxienezko bereizmena 300 dpi izango dute tamaina errealean , gutxienezko neurriak 24x16 cm (2835 X 1890 px) izanik, ondorengo bide hautako baten bidez:

CD batean grabatuta

Pendrive batean

Posta elektronikoaren bidez, [mendialdekoargazkilehiaketa@gmail.com](mailto:mendialdekoargazkilehiaketa@gmail.com) helbidera bidaliz.

Paperean aurkeztutako argazkiak 15x20cm edo handiagoko tamainan aurreztuko dira, kartulina batean jarrita.

Lan bakoitza ondorengo moduan aurkeztuko da:

A GUTUN-AZALA: gutun-azalaren kanpoaldean idatzi beharko da: “Arabako Mendialdeko Kuadrillaren XIX. Argazki Lehiaketa” eta lanaren izenburua.

A gutun-azalaren barrualdean sartuko dira:

1. “.jpg” formatu digitalean egin den lana CD edo PENDRIVE batean grabatuta, eta CDan edo PENDRIVEAN idatzita lanaren izenburua. Edo paperean inprimatutako argazkia 15x20 cm edo gehiagoko tamainan, kartulina batean jarrita; kartulinaren atzekaldean argazkiaren izenburua, kokapen geografikoa eta zein udalerrian egin den idatziko dira. Udalerria Arabako Mendialdeko Kuadrilla osatzen dutenetako bat izan beharko da.
2. Ondorengo datuak jasotzen dituen orri bat.
  - Lanaren izenburua
  - Argazkia zein kokapen geografikoan egin dagoen
  - Zein udalerriari dagokio lana.
  - Zer kategoriara aurkezten den.



B GUTUN-AZALA: beste gutu-azal itxi batean: kanpoaldean "Arabako Mendialdeko Kuadrillaren XIX. Argazki Lehiaketa" eta lanaren izenburua; eta, barrualdean, ondorengo datuak jasotzen dituen orri bat:

- Lanaren izenburua
- Lehiakidearen datu pertsonalak:
- Izen-abizenak. NANA. Helbidea eta telefonoa.

📧 Posta elektronikoaren bidez bidaliz gero, argazki bakoitzeko informazioa mezu bakar batean jasoko da. Halere, mezuari artxibo bat erantsiko zaio, argazkiaz gain, PDF formatuan. Artxibo horretan, B gutunazalak jaso beharko lukeen informazioa jasoko da. Bestela esanda, argazkiak gain, PDF artxibo bat atxikituko zaio mezuari, B GUTUNAZALA izenburuduna, ondorengo informazioa jasoko duena:

- 📧 Lanaren izenburua
- 📧 Lehiakidearen datu pertsonalak:
- 📧 Izen-abizenak. NANA. Helbidea eta telefonoa.
- 📧 Argazkia zein kokapen geografikoan eginga dagoen.
- 📧 Zer kategoriara aurkeztu den.

📧 Egile batek lana bat baino gehiago aurkeztuko balu, lehen aipatutako pausoak jarraitu beharko ditu lana bakoitzean -lehiakide ezberdinak izango balira bezala-, A eta B kartazalak lana bakoitzeko.

📧 Lanak postaz bidaliz gero, posta-kartazal batean sartu beharko dira lehiaketako 2 kartazal itxiak, A eta B.

📧 Aurkeztu diren argazkiak pertsonaren baten lehen-planoak baldin badira edo pertsona identifikatu ahal baldin bada, argazkian agertzen den pertsonaren esanbidezko adostasuna aurkeztu beharko da argazkiarekin batera, erabilera baimenduz..

📧 Kartazalak, argazkiak eta posta elektronikoaren bidez jasotako mezuak Kuadrillako langile batek kudeatuko ditu, epaimahaiko kide izango ez dena. Horrela, obren anonimotasuna bermatu nahi da obrak/hautagaitzak epaitzerako orduan, epaimahaiak ezin ditzan obrak eta euren egileak lotu.

#### 4.- EPEA:

Lanak aurrez aurre aurkez daitezke astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era; edo posta ziurtatutakoaren bidez bidali honako helbide honetara (posta bidez bidalitakoak barruan A eta B kartazala itxiak eraman behar dituzte)

Arabako Mendialdeko Kuadrilla  
Gasteiz-Lizarra errepidea  
01110 Santikurutze Kanpezu  
Araba

Tambien se podrán enviar a la siguiente dirección: [mendialdekoargazkilehiaketa@gmail.com](mailto:mendialdekoargazkilehiaketa@gmail.com)

**2024ko irailaren 27a, ostirala** izango da lanak aurkezteko azken eguna. Inolako zalantzarik izanez gero, deitu 945-405424 telefono-zenbakira, lehen zehaztu den ordutegi barruan.

#### 5.- SARIAK:

|            |           |
|------------|-----------|
| 1. Saria   | 350 euro. |
| 2. Saria   | 250 euro. |
| 3. Saria   | 150 euro. |
| 12 accesit | 75 euro.  |

Zerga-araudiaren arabera, dagozkien atxikipenak egingo dira horietatik.

Sariak pertsonalak eta besterenezinak dira.

Argazki bakoitzak sari bakarra eskura dezake. Lehiakide bakoitzak gehienez hiru sarietako bat eta accesit bi eskura ditzake. Epaimahaiak lehiaketaren gaia, kalitatea eta erabili den teknika baloratuko ditu. Epaimahaiak emateke utz dezake sarietakoren bat.

Lehiaketa irabaziko duten argazkiak bi fasetan hautatuko dira.



1. Udal bakoitzak pertsona bat izendatuko du epaimahaikide izateko. Pertsona horrek bere udaleko argazki guztien artean (gai-arlo bakoitzeko bat) 6 argazki aukeratu ditu, guztira.
2. Udal bakoitzak pertsona bat izendatuko du epaimahaikide gisa aritzeko. Pertsona horrek, gainerako epaimahaiekin batera, zehaztu beharreko datan 36 argazkiak ikusiko ditu (6 udaletxe bakoitzeko), 1., 2. eta 3. sariak irabazten dituzten argazkiak eta 12 accesitak aukeratzeko.

Lehenengo hiru sariak hiru argazki onenei emango zaizkie, epaimahaiaren irizpidearen arabera. Bestalde, 12 accesitak honako kategoria hauen arabera banatuko dira, kategoria bakoitzeko bi:

- Natura-ingurunea: natura, paisaiak, espazioak, fauna, flora, etab.
- Ondarea: elizak, baselizak, eraikinak, monumentuak, elementu txikiak, meategiak, etab.
- Kultura-jarduerak: jaiak, ekitaldiak, erromeriak, tradizioak
- Lehen sektorea: nekazaritza, abeltzaintza, erlezaintza...
- Artisautza, gastronomia eta nekazaritzako elikagaiak
- Garapen eta hazkunde jasangarria, zikloturismoa, berdintasuna eta euskara.

Epaimahaiaren iritziz kategorietako bat hutsik geratu behar bada edo kategoria horietarako aurreikusitako bietatik accesit bakarria eman behar bada, hutsik geratu diren accesitak gainerako kategorietan emango dira, epaimahaiaren irizpidearen arabera.

#### **6.- EPAIMAHAIA:**

Arabako Mendialdeko Kuadrillako batzarrak adostutakoaren arabera, Udal bakoitzak izendatuko ditu epaimahaikideak, Udal bakoitzeko bakarria, eta ezin izango da bere erabakiaren aurka jo.

#### **7.- SARIAK EMATEA, LANAK IKUSGAI JARTZEA ETA LANEN JABETZA:**

Sariak bi hilabeteko epean emango dira, obrak kalifikatzeko epaimahaia bildu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Saritutako lanak Arabako Mendialdeko Kuadrillaren jabetza izango dira, eta argazkiak ustiatzeko eskubideak Arabako Mendialdeko Kuadrillaren esku bakarrik utziko dituzte egileek. Argazki irabazleak Arabako Mendialdeko Kuadrillaren webgunean eta sare sozialetan argitaratu ahal izango dira, turismoa sustatzeko.

Saritutako argazkien egileek -paperean aurkeztu badituzte- horien negatiboa edo gordetan dauden diskoa eman beharko dute Arabako Mendialdeko Kuadrillari; behin saria jakinarazi, eta eman baino lehen.

Saririk gabeko lanak Arabako Mendialdeko Kuadrillako egoitzan itzuliko dira, 8:30etik 14:30era; jasotzeko azken eguna 2025eko otsailaren 14a izango da. Esandako epean jaso ez diren argazkiak Arabako Mendialdeko Kuadrillaren jabetza izango dira.

Arabako Mendialdeko Kuadrillak saririk lortu ez duten lanaren bat erabiltzeko interesgarria dela uste badu egileari bere erosketa proposa diezaioke. Prezioa ez da inoiz accesit baino handiagoa izango. Egilea ados egon behar da beti erosketa hau egin ahal izateko.

#### **8.- OHARRAK:**

- 1.- Obren integritatearen ardura eta zaintza Arabako Mendialdeko Kuadrillak bere gain hartzen du. Baina hori bete, eta lanaren bat nolabaiteko narriadurarik izan edota galduko balitz -erakunde honi lepora ezin dakizkiokeen eta halabeharreko kausak direla medio-, ez luke kalte horien gain inolako erantzukizunik izango.
- 2.- Lanak behar bezala kontserbatzeko enbalaje egokia gomendatzen da.
- 3.- Oinarrietan arautu gabeko kasuak interpretatzeko eta erabakitzeko ahalmena du epaimahaiak; eta, horrela ezean, Arabako Mendialdeko Kuadrillako lehendakariak.
- 4.- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri-hauek ezagutu eta onartu izana dakar.



**9.- DATUEN BABESA.**

Datuak Babesteko Erreglamendu Orokorrak ezarritako betebeharrak betez, jakinarazten dizugu nola tratatuko ditugun zure datu pertsonalak lehiaket ahonetan parte hartzen duzun bitartean. Askatasunez parte hartuko duzu lehiaketa honetan, horretarako zure datuak Arabako Mendialdeko Kuadrillari emanaz.

| <b>Tratamenduaren Arduraduna</b> | <b>Arabako Mendialdeko Kuadrilla</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
|----------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Xedeak</b>                    | <p>Lehiaketako parte-hartzaileen datuak tratatzea, lehiaketaren berezko helburuetarako eta kudeaketarako, etorkizuneko edizioetarako, datuak berrestea eta, hala badagokio, sariak irabazleei ematea.</p> <p>Egilea nor den adieraztea Arabako Mendialdeko Kuadrillak argitaratzen duen egutegian, bai eta material horren balizko inprimatze eta/edo argitalpenetarako ere.</p> <p>Argazki irabazleak Arabako Mendialdeko Kuadrillaren webgunean eta sare sozialetan argitaratu ahal izango dira, turismoa sustatzeko.</p> |
| <b>Legitimazioa</b>              | Tratamendua egiteko legebidezotasuna parte hartzailearen adostasuna da, baita oinarriak onartu izana ere.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
| <b>Hartzaileak</b>               | Ez zaizkio datuak beste entitate bakar bati ere helaraziko, slabu eta komunikazio hori legeak behartuta baldintzatuta baldin badago. Ez dira datuak nazioartean transferitutuko, ezta berme nahikoak eskaintzen ez dituzten nazioarteko erakudeei ere.                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| <b>Eskubideak</b>                | Ondorengo eskubide hauek dituzu: datuetan sartzekoa, datuak moldatzekoa eta ezabatzekoa, baita DBEOk zehaztutako gainontzkeo eskubideak ere. Eskubide hauek egikaritzeko, Kuadrillako Erregistro Orokorrarengana jo dezalezu, Gasteiz-Lizarra Errepidea, 7 -01110 Santikurutze Kanpezu. Araba helbidea duenarengana, hain zuzen ere.                                                                                                                                                                                        |
| <b>Datuen jatorria</b>           | Interesduna                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |